

IZEN JATORREN ONDORIOZKO ARGIBIDE BATZUK

Hondarribia aldizkari honen aurreko zenbakietan izen jatorri buruz eman ditugun argibideak jarraitu dituen ohartuko zen, noski, eritzia eman ahal izateko ageri zaharretatik gaur egungo ahozkatzera artekoaz baliatu garea, ikuspegi zuzen eta zehatzetaz jabetzeko beharrezkoa iduritu zaidalako lehenik uhartze zabala begiratzea.

Hortarako, azken lau mende hontako etxe izenak, mendez mende fixatu beharra izan dut, bibliografiatik jasoa eta Udaleko agiritegia behatuz bildu ahal izan dudanean oinarriturik. Hamaseigarren medekorik guti batzuk baizik ez ditut aurkitu. Historian hainbeste ospe izan duen hiri honek, gezurra badirudi ere, Erdi Aroko ageririk urri du. Hala ere, zenbait ondorio atera izan dut eta horien argibide batzuk eman nahi nituzke gaurkoan. Eta, hau ere izan bedi lekuizena kultur ondareztat errespetatzen eta zaintzen laguntzeko.

Gure egunotan, etxe izenez, hain ugari aurkitzen dugun -nea, -enea atziki jenitiboa ez da agertzen XVIII. mendearen azkenaldira arte. Adibidez, 1787 urtetik *Percazena* bezala ezagutzen dena, Garibay historiagileak bere *Compendio Historial*-ean (2. to-moko XXX. liburuan) 1523ko gertakariak jasotzean, "casería, llamada Percaça" eta "casa de Percaça" aipatzen du. Era berean zekarren A. Bernal de O'Relly-k, "colina llamada Percáz" 1638ko hesiko gertakariez idaztean.

Atziki hori, izatez -ena, bokal ondoren -rena forma duena, etxearen adierazle dugu, erdarazko "la (casa) de"-ren kideko. Ikus Mixelenaren *Apellidos Vascos* (1953) lehen argitalpena 60. orrialdean; -enea eta -renea ondorizkoak baizik ez dira. Bukarako a artikulua baizik ez da.

Floridablanca kondearen aginduz 1787an egin zen lehen zenso hartan agertzen dira Hondarribiko lehen -nea eta -neak. Esan bezala, etxea adierazteko. Lehendik baziren ordea -etxe hitzaz gainera -egi, -tegi eta -koa, -kua gauza bere adierazteko. Eta, horiek, nik bildu ditudan agerrien arabera, ez dute hartu -enea-rik. Esate baterako, ikus ditza-gun aurretik edo nahiz atzetik -etxe daroatenek mendez mende nola agertzen zaizkigun:

1638an *Echeberria*, 1841ean *Echeberri* eta 1969an *Etxeberri*. Aurrizki bezala atziki-keri ere: 1625ean *Garaicoechea* eta 1969an *Garaikoetxea*; 1638an *Barrenechea* eta 1857an ere *Barrenechea* zena, ortografia berriaz, 1969an *Barrenetxea* jarraitzen du. Adibide bat baizik ez da etxe hitzez doanean -enea atziki-keri ez zaiola ezartzen ikusteko.

Gauza bera dirudi -koa edo -kua atziki-keri daroanean, -koa hori berez etxearen adierazpena denez. Horrela ba, 1625ean *Alchacoa*, 1857an *Alchacoa* eta 1969an *Altxa-koa*. Bukarako a bokal hori, esan beharrik

ez dago artikulua baizik ez dela. Horregatik, uste dut, *Ipiztiku* baserriak -ku hori -koren berdina duela. Hala ez balitz ere, beste era bateko lekukotasuna ematen dit. *Ipiztiku* zaharra 1625 ean aipatzen du Isastik, *Ipizticu*, eta 1969an Udalak egin zuen mapan dator *Ipistiku*. Jatorri hortatik, ezkontza bidez edo, bigarren etxea sortzen denean, 1857 urteko lekukotasuna adibide, *Ipistucua* sortzen da. Horrela adierazten da nonen edo nondikako jabetasuneko den.

Hori baino zaharrag da -egi, -tegi, etxea adierazteko. Eta hori daroatenei ere ez zaie beste ezer erasten. Har ditzagun zenbait adierazpen eta XVI. mendean aipatzen denetik hasiko gara: 1587an *Caicuegui*, 1787an ere *Caicuegui* eta 1969an *Kaikuegi*. Era berean irauango dute atziki berekoak: *Mancia-tegui*, *Manziategi*; *Parchalategui*, *Partxalategi*; *Tolartegui*, *Tolartegi*; eta abar.

Hondarribia parteari dagokionez behinik-pehin, lehendik etxearen erreferentzia zekartenek, hau da, -etxe, -tegi, -koa, ez dute hartzen XVIII. mendearen azkenalditik ageri den -enea edo -nea atziki-keri (aldi berean, oroi honen era jatorra -ena dela).

Toki-izen tinkoari itsatsirik edo itsasteko -aga edo -eta doanean ere gauza bera gertatzen dela esango nuke, sailkatu ditudan adibideen arabera.



Beko-Borda

Gainera, inoiz izenak berak aldakuntzak edo okerkuntzak izanarren, atzikiak berean irauango du. Esate baterako, 1625ean eta 1787an *Loibiaga* zena, 1969an *Lobiaga* da. 1787an eta 1857an *Elbistieta* zena, 1969an *Ilbistieta*. Era berean, joan zen mendera arte *Idurmendieta* zena, orain *Illurmendieta*; *Landergorrieta*, *Landagorrieta*. Badira ordea mendeak zehar berdin jarraitzen dutenak, *Mugarrieta* bezala, 1620an aipatua eta 1969ko mapan berdin jarraitzen duena. Baina, -aga eta -eta tokikotasuna daramatentan ez da agertzen -ena, -enea atziki-keri. Kasu hortan, badirudi lekuizenak etxeari tinkotasun berezia ematen diola.

Badirudi -aga horrek toki jakin bateko

finkotasun soila ematen duela eta -eta antzerako zerbait, baina era berean ugaritasuna, Azkuek zionez.

Hondarribiko -enea, -neak ordea, badute beren interesa berriak izanik ere. Arestian esan bezala, etxea adierazteko da, "halakorena" aditzera emanez. Hizketan lehen lehenagotik erabiliko zen, Gonzaloren etxeari *Gonzalona* (1787) deituz eta hala pasatu agerietara. Idatzian behintzat lekukotasun seguru xamarra dugun Hondarribian, XVII. mendean kaso bakar bat bera ere ez zaigula agertzen. Ordurarte izenak soil soilik erabiltzen ziren, eta XVIII.aren azkenaldia atziki hori sartzeaz ez zaiela itsastan lehendik etxe erreferentzia zuten -egi, -tegi; eta, -koa,

-kua zeramatenei. Era berean, badirudi lekukotasuneko diren -eta eta -aga atziki-keri ere jokabide bera hartzen dela.

Etxe adierazpeneko atziki berria, gehienbat ponte izenetan erabiltzen da, baina baita ere lehenagoko deiturretan oinarriturik ere. Azkenik, baita izengoitiz, ofizioz edo tituluz ere. Titulu eta ofizioen zenbait adibide eman nituen aurreko zenbakian (ikus, *Hondarribia*, 15. zenb. 9.orr.).

Esandakoaren lekuko, hara hemen adibide batzuk: *Aramburu* 1598 eta 1638 urteetan agertzen da eta 1787tik *Aramburunea*; 1638 *Arburu*, 1857an *Arburunea*; 1625eko *Alquiza*, 1787an *Alquizenea*. 1625ean *Ochote* izen soilez zetorrena, 1787an *Ochotonea*; 1625eko *Peruzo*, 1787an *Perukonea* eta 1969an *Perukenea* (oroi, 1787an bazela Pe-

ruco berri ere). Izengoiti edo ezizenetako bat dugu *Pellobeltzenea*, 1857an *Pellobelchenea* bezala aipatzen zena. 1787tik *Pelentiñenea* bizi zen Bernat de Pelentinengandik hartua izango du. Baina historiako pertsonaiegandik datorrenik ere bada aski eta denak aipatzeaz luze arituko ginateke.

Lekuizen zaharrak, deituren iturburu diren baserriak barne, historiaren aztergai dira, gure sustraiak eta hizkuntza bera hobeto ezagutzeko lagungarri.

Juan San Martin